Xedapen Orokorrak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARIORDETZA

214

1/2009 DEKRETUA, urtarrilaren 13koa, Bitariko Transferentzia Batzordearen 2008ko abenduaren 11ko Akordioa onartzeko dena. Eta akordio horren gaia hauxe da: Justizia Administrazioak funtziona dezan, baliabide ekonomiko eta materialez hornitzeari dagokionez, azaroaren 6ko 1684/1987 Errege Dekretuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoari eskuratutako zerbitzuei doazkien ondare-baliabideak areagotzea.

Irailaren 26ko 2339/1980 Errege Dekretuaren bidez Bitariko Transferentzia Batzordearen akordio bat onartu zen, eta horren 2. artikuluak ezarritakoarekin bat etorriaz, akordio horretan eskatutako formalizazio-izapideak betetzeko, dekretu honek, batetik, aipatu akordioa onartu eta argitaratzeko helburua du, eta, bestetik, transferitutako baliabideak esleitzekoa. Izan ere, urtarrilaren 9ko 2/2009 Errege Dekretuak jaso egiten baitu Bitariko Transferentzia Batzordearen 2008ko abenduaren 11ko Akordioa, zeina ondokoari buruzkoa baita: Justizia Administrazioak funtziona dezan, baliabide ekonomiko eta materialez hornitzeari dagokionez, azaroaren 6ko 1684/1987 Errege Dekretuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoari eskuratutako zerbitzuei doazkien ondare-baliabideak areagotzeari buruzkoa, alegia.

Hori dela-eta, lehendakariordearen proposamenez, eta Lehendakaritzak onartuta eta Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2009ko urtarrilaren 13an egindako batzarrean, eztabaidatu eta onartu ostean, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Batetik, Bitariko Transferentzia Batzordearen 2008ko abenduaren 11ko Akordioa onartzea, 2009ko urtarrilaren 9ko 2/2009 Errege Dekretuan ezarritako zehaztapenekin onartu ere. Akordio horren gaia hauxe da: Justizia Administrazioak funtziona dezan, baliabide ekonomiko eta materialez hornitzeari dagokionez, azaroaren 6ko 1684/1987 Errege Dekretuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoari eskuratutako zerbitzuei doazkien ondare-baliabideak areagotzea. Eta bestalde, dekretu hura Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, dekretu honen eranskinean.

2. artikulua.– Transferitutako baliabide materialak Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari atxikiko zaizkio.

Disposiciones Generales

VICEPRESIDENCIA DEL GOBIERNO

214

DECRETO 1/2009, de 13 de enero, por el que se aprueba el Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias de 11 de diciembre de 2008, sobre ampliación de medios patrimoniales adscritos a los servicios traspasados a la Comunidad Autónoma del País Vasco por el Real Decreto 1684/1987, de 6 de noviembre, en materia de provisión de medios materiales y económicos para el funcionamiento de la Administración de Justicia.

En virtud de lo establecido en el artículo 2 del Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias, aprobado por Real Decreto 2339/1980, de 26 de septiembre, y a los efectos del cumplimiento de los trámites de formalización en el mismo requeridos, por entender que el Real Decreto 2/2009, de 9 de enero, recoge en sus mismos términos el Acuerdo del Pleno de la citada Comisión de 11 de diciembre de 2008, sobre ampliación de medios patrimoniales adscritos a los servicios traspasados a la Comunidad Autónoma del País Vasco por el Real Decreto 1684/1987, de 6 de noviembre, en materia de provisión de medios materiales y económicos para el funcionamiento de la Administración de Justicia, el presente Decreto tiene por objeto, de una parte, aprobar dicho Acuerdo y su publicación, y, de otra, adscribir los medios materiales transferidos.

Por todo lo cual, a propuesta de la Vicepresidenta, previa aprobación de la Presidencia y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 13 de enero de 2009,

DISPONGO:

Artículo 1.– Aprobar el Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias de 11 de diciembre de 2008, sobre ampliación de medios patrimoniales adscritos a los servicios traspasados a la Comunidad Autónoma del País Vasco por el Real Decreto 1684/1987, de 6 de noviembre, en materia de provisión de medios materiales y económicos para el funcionamiento de la Administración de Justicia, en los términos establecidos por el Real Decreto 2/2009, de 9 de enero de 2009, ordenando la publicación íntegra del citado Real Decreto en el Boletín Oficial del País Vasco como anexo al presente Decreto.

Artículo 2.– Los medios materiales transferidos quedan adscritos al Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2009ko urtarrilaren 13an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Jaurlaritzaren lehendakariordea,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

URTARRILAREN 13KO 1/2009 DEKRETUAREN ERANSKINA

2/2009 ERREGE DEKRETUA, 2009ko urtarrilaren 9koa, Justizia Administrazioak funtziona dezan, baliabide ekonomiko eta materialez hornitzeari dagokionez, azaroaren 6ko 1684/1987 Errege Dekretuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoari eskuratutako zerbitzuei doazkien ondare-baliabideak areagotzeko dena.

Konstituzioaren 149.1.5.ª artikuluarekin bat etorriaz, Justizia Administrazioaren arloan Estatuak du eskumen esklusiboa du.

Bestalde, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaz onartutako Euskal Herriko Autonomia Estatutuak bere 35.3 artikuluan ezartzen duenez, Autonomia Erkidegoari dagokio, bere lurraldearen barruan: Justizia Administrazioak funtziona dezan, beharrezko baliabide material eta ekonomikoez hornitzea, betiere, Botere Judizialaren Lege Organikoan eskumen hori Gobernuari erreserbatzeko diren zehaztapen berberekin.

Administrazio Justiziak funtzionatzeko baliabide ekonomiko eta materialez hornitzearen arloko zerbitzuak eta funtzioak Euskal Autonomia Erkidegoari eskuratu zitzaizkion, hain justu ere azaroaren 6ko 1684/1987 Errege Dekretuaren bidez.

Euskal Herriko Autonomia Estatutuko bigarren xedapen iragankorrean aurreikusitako Bitariko Batzordeak, 2008ko abenduaren 11n egindako batzarrean, honako akordioa hartu zuen: Justizia Administrazioak funtziona dezan, baliabide ekonomiko eta materialez hornitzeari dagokionez, azaroaren 6ko 1684/1987 Errege Dekretuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoari eskuratutako zerbitzuei doazkien ondare-baliabideak areagotzea; eta hori gauzatzeko, Gobernuak errege dekretu bidezko onarpena eman beharko du.

Ondorioz, Euskal Herriko Autonomia Estatuko bigarren xedapen iragankorren xedatutakoa betetzearren, Herri Administrazioetarako Ministroak proposaturik, eta 2009ko urtarrilaren 9an egindako batzarrean Ministroen Kontseiluak eztabaidatu ostean, hauxe

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 13 de enero de 2009.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Vicepresidenta del Gobierno,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

ANEXO
AL DECRETO 1/2009, DE 13 DE ENERO

REAL DECRETO 2/2009, de 9 de enero, sobre ampliación de medios patrimoniales adscritos a los servicios traspasados a la Comunidad Autónoma del País Vasco por el Real Decreto 1684/1987, de 6 de noviembre, en materia de provisión de medios materiales y económicos para el funcionamiento de la Administración de Justicia.

De conformidad con el artículo 149.1.5.ª de la Constitución, el Estado tiene competencia exclusiva en materia de Administración de Justicia.

Por su parte, el Estatuto de Autonomía del País Vasco, aprobado por la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, establece en su artículo 35.3 que corresponderá a la Comunidad Autónoma, dentro de su territorio, la provisión de los medios materiales y económicos necesarios para el funcionamiento de la Administración de Justicia, en los mismos términos en que se reserve tal facultad al Gobierno en la Ley Orgánica del Poder Judicial.

Por el Real Decreto 1684/1987, de 6 de noviembre, fueron traspasados a la Comunidad Autónoma del País Vasco las funciones y servicios en materia de provisión de medios materiales y económicos para el funcionamiento de la Administración de Justicia.

La Comisión Mixta prevista en la disposición transitoria segunda del Estatuto de Autonomía para el País Vasco adoptó, en su reunión del día 11 de diciembre de 2008, un Acuerdo sobre ampliación de medios patrimoniales adscritos a los servicios traspasados a la Comunidad Autónoma del País Vasco por el Real Decreto 1684/1987, de 6 de noviembre, en materia de provisión de medios materiales y económicos para el funcionamiento de la Administración de Justicia, cuya virtualidad práctica exige su aprobación por el Gobierno mediante Real Decreto.

En su virtud, en cumplimiento de lo dispuesto en la disposición transitoria segunda del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, a propuesta de la Ministra de Administraciones Públicas y previa deliberación del Consejo de Ministros en su reunión del día 9 de enero de 2009,

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Justizia Administrazioak funtziona dezan, baliabide ekonomiko eta materialez hornitzeari dagokionez, azaroaren 6ko 1684/1987 Errege Dekretuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoari eskuratutako zerbitzuei doazkien ondare-baliabideak areagotzeko Akordioa, zehazki, Euskal Herriko Autonomia Estatutuko bigarren xedapen iragankorrean aurreikusitako Bitariko Batzordeak hartutako Akordioa onartzen da. Batzorde horrek, 2008-12-11n egindako osoko bilkuran, onartu zuen aipatu akordioa, eta errege dekretu honen eranskinean jasotzen da.

2. artikulua.– Beraz, Bitariko Batzordearen Akordioan jasotako ondasun higiezina Euskal Autonomia Erkidegoari eskuratzen zaio, hain justu ere akordio horretan jasotako baldintza eta zehaztapenekin.

3. artikulua.– Bitariko Batzordearen Akordioan zehaztutako egunetik aurrera izango du eragina transferentziak.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA.– Indarra hartzea.

«Estatuko Aldizkari Ofizialean» eta «Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian» argitaratuko da errege dekretu hau, aldi berean; eta argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra.

Madrilen, 2009ko urtarrilaren 9an.

JUAN CARLOS, ERREGEA.

Herri Administrazioetarako ministroa,
ELENA SALGADO MÉNDEZ.

ERANSKINA

Antonio López Soto eta Begoña Pérez de Eulate González jaun-andreek, Euskal Herriko Autonomia Estatutuko bigarren xedapen iragankorrean aurreikusitako Bitariko Batzordeko idazkariek, honako hau

EGIAZTATU DUTE:

2008ko abenduaren 11n egindako osoko bilkuran, Bitariko Batzordeak honako akordioa hartu zuen: Justizia Administrazioak funtziona dezan, baliabide ekonomiko eta materialez hornitzeari dagokionez, azaroaren 6ko 1684/1987 Errege Dekretuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoari eskuratutako zerbitzuei doazkien ondare-baliabideak areagotzeko dena; guztia ere, ondoko zehaztapenekin bat.

A) Transferentziaren oinarri diren Konstituzioaren eta Estatutuaren arauei buruzko erreferentzia.

Konstituzioaren 149.1.5.ª artikuluarekin bat etorriaz, Justizia Administrazioaren arloan Estatuak du eskumen esklusiboa du.

DISPONGO:

Artículo 1.– Se aprueba el Acuerdo de la Comisión Mixta prevista en la disposición transitoria segunda del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, sobre ampliación de medios patrimoniales adscritos a los servicios traspasados a la Comunidad Autónoma del País Vasco por el Real Decreto 1684/1987, de 6 de noviembre, en materia de provisión de medios materiales y económicos para el funcionamiento de la Administración de Justicia, adoptado por el Pleno de dicha Comisión en su sesión del 11 de diciembre de 2008, y que se transcribe como anexo de este Real Decreto.

Artículo 2.– En consecuencia, queda traspasado a la Comunidad Autónoma del País Vasco el bien inmueble que figura en el acuerdo de la Comisión Mixta, en los términos y condiciones que allí se especifican.

Artículo 3.– El traspaso será efectivo a partir de la fecha señalada en el Acuerdo de la Comisión Mixta.

DISPOSICIÓN FINAL ÚNICA.– Entrada en vigor.

Este Real Decreto será publicado simultáneamente en el «Boletín Oficial del Estado» y en el «Boletín Oficial del País Vasco», adquiriendo vigencia el día siguiente al de su publicación.

Dado en Madrid, a 9 de enero de 2009.

JUAN CARLOS R.

La Ministra de Administraciones Públicas,
ELENA SALGADO MÉNDEZ.

ANEXO

Don Antonio López Soto y doña Begoña Pérez de Eulate González, Secretarios de la Comisión Mixta prevista en la disposición transitoria segunda del Estatuto de Autonomía del País Vasco,

CERTIFICAN

Que en el Pleno de la Comisión Mixta, celebrado el día 11 de diciembre de 2008, se adoptó un Acuerdo sobre ampliación de medios patrimoniales adscritos a los servicios traspasados a la Comunidad Autónoma del País Vasco por el Real Decreto 1684/1987, de 6 de noviembre, en materia de provisión de medios materiales y económicos para el funcionamiento de la Administración de Justicia, en los términos que a continuación se expresan:

A) Referencia a normas constitucionales y estatutarias en las que se ampara el traspaso.

De conformidad con el artículo 149.1.5.ª de la Constitución, el Estado tiene competencia exclusiva en materia de Administración de Justicia.

Bestalde, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaz onartutako Euskal Herriko Autonomia Estatutuak bere 35.3 artikuluan ezartzen duenez, Autonomia Erkidegoari dagokio, bere lurraldearen barruan: Justizia Administrazioak funtziona dezan, beharrezko baliabide material eta ekonomikoez hornitzea, betiere, Botere Judizialaren Lege Organikoan eskumen hori Gobernuari erreserbatzeko diren zehaztapen berberekin.

Administrazio Justiziak funtzionatzeko baliabide ekonomiko eta materialez hornitzearen arloko zerbitzuak eta funtzioak Euskal Autonomia Erkidegoari eskuratu zitzaizkion, hain justu ere azaroaren 6ko 1684/1987 Errege Dekretuaren bidez.

Euskal Autonomia Erkidegoari transferitutako ondare-baliabideak areagotzeko akordioa formalizatzea bidezkoa da, hain justu ere erantsitako 1. zerrendan zehaztutako higiezina gehituaz.

B) Estatuaren ondasunak, eskubideak eta obligazioak, areagotzen direnak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoak bere egiten dituen funtzioez baliatzeari dagokionez, azaroaren 6ko 1684/1987 Errege Dekretuaren bidez transferitutako eskubide eta ondare-baliabideen transferentzia areagotu egiten da, hain justu ere erantsitako 1. zerrendan zehazten denaren bitartez.

2.– Transferitutako baliabideen espedienteak eta agiriak hilabeteko epean entregatu beharko dira, Akordioak indarra hartzen duenetik hara; eta hartarako, inbentarioan sar daitezkeen higiezinak, ekipoa eta materiala jaso eta entregatzeko aktak sinatuko dira, betiere irailaren 26ko 2339/1980 Errege Dekretuko 4. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriaz.

C) Baliabideak areagotzeak indarra noiz hartzen duen.

Aldi berean, «Estatuko Aldizkari Ofizialean» eta «Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian» argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra akordio honetan jasotako ondare-baliabideak areagotzeak.

Eta jasota gera dadin, Madrilen, 2008ko abenduaren 11n, ematen dugu ziurtagiri hau.

Bitariko Batzordeko idazkariak,
ANTONIO LÓPEZ SOTO eta
BEGOÑA PÉREZ DE EULATE GONZÁLEZ.

Por su parte, el Estatuto de Autonomía del País Vasco, aprobado por la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, establece en su artículo 35.3 que corresponderá a la Comunidad Autónoma, dentro de su territorio, la provisión de los medios materiales y económicos necesarios para el funcionamiento de la Administración de Justicia, en los mismos términos en que se reserve tal facultad al Gobierno en la Ley Orgánica del Poder Judicial.

Por el Real Decreto 1684/1987, de 6 de noviembre, fueron traspasados a la Comunidad Autónoma del País Vasco las funciones y servicios en materia de provisión de medios materiales y económicos para el funcionamiento de la Administración de Justicia.

Procede formalizar el acuerdo sobre ampliación de los medios patrimoniales traspasados a la Comunidad Autónoma del País Vasco añadiendo el inmueble que se especifica en la relación adjunta número 1.

B) Bienes, derechos y obligaciones del Estado que se amplían.

1.– Se amplía el traspaso de los bienes inmuebles y derechos traspasados por el Real Decreto 1684/1987, de 6 de noviembre, afectos al ejercicio de las funciones que asume la Comunidad Autónoma del País Vasco, con el que figura en la relación adjunta número 1.

2.– La entrega de la documentación y los expedientes de los medios traspasados se realizará en el plazo de un mes desde la fecha de efectividad de este acuerdo, a cuyo efecto se suscribirán las correspondientes actas de entrega y recepción de mobiliario, equipo y material inventariable, de conformidad con lo establecido en el artículo 4 del Real Decreto 2339/1980, de 26 de septiembre.

C) Fecha de efectividad de la ampliación de medios.

La ampliación de medios patrimoniales objeto de este acuerdo tendrá efectividad a partir del día siguiente al de su publicación simultánea en el «Boletín Oficial del Estado» y en el «Boletín Oficial del País Vasco».

Y para que conste, expedimos la presente certificación en Madrid, a 11 de diciembre de 2008.

Los Secretarios de la Comisión Mixta,
ANTONIO LÓPEZ SOTO y
BEGOÑA PÉREZ DE EULATE GONZÁLEZ.

1. ZERRENDA.– Transferitzen diren higiezin ondasunak

RELACIÓN NÚMERO 1.– Bienes inmuebles que se traspasan

Herria	Helbidea	Eraikitako azalera m^2	Organoak edo zerbitzuak	Egoera juridikoa
Oiartzun (Gipuzkoa)	San Esteban plaza, 1. Beheko solairua	106,18	Bake Epaitegia	Jabetza

Localidad	*Dirección*	*Superficie construida m^2*	*Órganos o servicios*	*Situación jurídica*
Oiartzun (Guipúzcoa)	*Plaza de San Esteban, 1. Planta baja.*	*106,18*	*Juzgado de Paz*	*Propiedad*